

II. eranskina: Gai-zerrenda

PARTE OROKORRA

1. gaia.- 1978ko Espainiako Konstituzioa: Atariko titulua eta Lehen titulua.
2. gaia Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: Atariko titulua.
3. gaia.-Parlamentua edo Nafarroako Gorteak: osaera, antolaketa eta funtzioak. Nafarroako Gobernua: Eginkizunak. Osaera, izendapena, eraketa eta kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Nafarroako Gobernuako lehendakaria: hautaketa, izendapena eta eskudantziak.
4. gaia.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua: Langile-motak. Funtzionario publikoen hautaketa. Funtzionario izaera hartzea eta galtzea. Administrazio-karrera. Egoera administratiboak. Lanpostu-hornikuntza. Eskubideak eta betebeharrak.
5. gaia.- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa: Atariko titulua. Kontratistak. Kontratu-tipologia eta araubide juridikoa. Publikotasun-arauak eta adjudikazio prozedurak. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Xedapen orokorrak eta dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko prozedura. Dirulaguntzak itzultzea.
6. gaia.- 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa. I. titulua: "Xedapen orokorrak". II. titulua: I. kapitulua: "Foru Administrazio Publikoa". II. kapitulua: "Foru Administrazio Publikoaren antolaketa". VI. titulua: I. kapitulua "Pertsonen eskubideak".
7. gaia.- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa: Aplikazio esparruaz eta Nafarroako Ogasun Publikoaz Nafarroako Aurrekontu Orokorrak: edukia eta onespena; exekuzioa eta likidazioa.
8. gaia.- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako: Berdintasun-printzipioa eta bazterkeriaren kontrako babesa.
9. gaia.- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.
10. gaia.- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integraleko Neurriak arautzen dituen. 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa. 14/2015 Foru Legeak garatzen duen ekintza-plana.
11. gaia.- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa: Xedapen orokorrak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak.

ZATI ESPEZIFIKOA

12. gaia.- 2/ 2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.

13. gaia.- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.

14. gaia.- 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen.

15. gaia.- 95/2022 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Haur Hezkuntzako antolakuntza eta gutxieneko irakaskuntzak arautzen dituena.

16. gaia.- 61/2022 Foru Dekretua, ekainaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.

17. gaia.- Kudeaketaren antolaketa, organigrama eta Estatutuak Iruñeko Udaleko Haur Eskoletan.

18. gaia.- Hezkuntza-proiektua eta Proposamen Pedagogikoa Haur Hezkuntzako lehen zikloko Nafarroako ikastetxeetan.

19. gaia.- Familia giza-garapenaren testuinguru gisa: familiaren gizarte-bilakaera. Familia ereduak. Rolak. Familiaren funtzioak. Hezkuntza-estiloak. Gurasotasun positiboa

20. gaia.- Korrante pedagogiko nagusien planteamenduak eta eragina 0-3 urteko zikloan. Eskola Berria. Ikuspegi eta metodo pedagogiko garrantzitsuenak: Reggio Emilia ikuspuntua, konstruktibismoa, Waldorf pedagogia, Emmi Pikler pedagogia, Montessori metodoa eta Heike Freireren pedagogia berdea.

21. gaia.- Iruñeko Udaleko Haur Eskolen ildo pedagogikoa. Printzipio komunak.

22. gaia.- Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxearen antolaketa. Hezkuntza-koherentzia, profesionalen jarrerak. Espazioen eta denboren antolaketa.

23. gaia.- Giroa. Ekipamendua, material pedagogikoak eta curriculum-materialak, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-etapan.

24. gaia.- Kalitatea eta berrikuntza. Kalitate-faktoreak haur-eskolaren antolaketan eta funtzionamenduan. Kultura estatikoa eta kultura dinamikoa.

25. gaia.- Ebaluazioa haur-eskolan. Ebaluazioaren funtzioa. Ebaluazio-estrategiak, -teknikak eta -tresnak. Behaketa ebaluazio-teknika gisa. Ikastetxearen ebaluazioa eta hobetzeko planak.

26. gaia.- Familiaren eta haur-eskolaren arteko harremanak.

27. gaia.- Hezkuntzako esku-hartze printzipioak eta oinarriko metodologia, 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza-zikloan.

28. gaia.- Hezkuntza-ikerketa: dokumentazioa haur-eskolan. Idatzizko, ikusizko eta ikus-entzunezko dokumentazioa. Dokumentazioaren funtzioak, helburua eta trataera.

29. gaia.- Haurrendako garrantzitsuak diren alderdiei eskolan ematen zaien arreta: harrera, janaria, loa, pixoihala aldatzea eta esfinterren kontrola.

30. gaia.- Gatazken lanketa haur-eskolan

31. gaia.- Haur-eskolako Zuzendaritzaren funtzioak eta ardurak. Kudeaketa estiloak. Helburuak eta printzipioak.

32. gaia.- Pertsonen arteko harremanak eta talde-lana. Taldean parte hartzea zuzendari rola edukita. Langileen motibazioa. Bileren gidaritza eraginkorra.

33. gaia.- Arazoak aztertzea eta erabakiak hartzea. Irtenbideak sortzeko teknikak. Erabaki eraginkorrak.

34. gaia.- Gatazken konponbidea. Negoziazioa eta bitartekaritza. Hitzarmen eraginkorrak. Elkar-ulertzeko giroa sortzea. Estresaren kudeaketa.

35. gaia.- Adimen emozionala zuzendaritzari aplikatuta. Giza faktorea laneko eta antolaketako gako gisara. Emozioak. Komunikazioaren eraginkortasuna.

36. gaia.- Informazioa eta komunikazioa. Komunikazioa hobetzeko teknikak. Lan-giroa.

37. gaia.- Denboraren kudeaketa: eskolako zuzendaritzan kontrolatu beharreko alderdia. Lan pertsonalaren antolaketa. Presako lanak eta lehentasunezko lanak. Lanaren antolaketa.

38. gaia.- Lan-arriskuen prebentzioa nola kudeatu haur-eskoletan. Lan- eta osasun-baldintzak.

39. gaia.- Hezkidetzak eta berdintasunerako hezkuntza.

40. gaia.- Osasunerako hezkuntza haur-eskolan. Haur-eskola osasun-eragile gisa. Gaixotasun-egoeretan esku hartzea haur-eskolan. Istripuen prebentzioa eta lehen sorospenak.

41. gaia.- Elikadura osasungarria haur-eskolan. Haurren elikaduraren garapena eta ezaugarriak. Elikadura eta familia.